



14. KLASE MAGISTRALA: KUKUTXEZTULA. PAROTIDITISA. SINDROME MONONUKLEOSIKOA

Sindrome mononukleosikoa

Mononukleosi infekziosoa gaixotasun sistemikoa da, kasuen % 90a Ebstein-Barr birusak eraginda eta poblazioren % 95a infektatzen duena.

Ezaugarri klinikoak: sukarra, adenomegaliak, faringoamigdalitisa, esplenomegalia eta noizbehinka exantema. Bestelako germenek ere (zitomegalobirusak, toxoplasmak eta GIBak) antzeko sintomatologia eragin dezakete, "sindrome mononukleosiko" izenez ezaguna.

EBBak eragindako mononukleosia, etiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua, konplikazioak eta morbiditate erlazionatuak.

Parotiditisa


Parotiditis epidemikoa ("parotitisa") gaixotasun akutua da, normalean parotidaren hanturarekin agertzen dena. Gaur egun, gure ingurunean kasuak eta broteak ikusten dira.

Parotiditis infekziosoa: etiologia, epidemiologia, klinika, diagnostikoa, diagnostiko bereizlea eta tratamendua. Konplikazioak. Prebentzioa.

Kukutxeztula

Kukutxeztula gaur egun ere osasun publikoaren arazo bezala jarraitzen du munduan zehar. Garapen herrialdeek nahiz eta haurtzaroko txertaketa unibertsala izan, kasuen igoera nabarmendu dute adin talde desberdinetan, bai nerabe eta heldu gazteetan, baita ere edoskitzaile txikietan. Azkenengo hauek ospitalizazio tasa, konplikazio larriak eta heriotza-tasa altuenak dituzte.

PEDIATRIA SAILA
DEPARTAMENTO DE PEDIATRIA



Sindrome pertusoidearen definizioa. *Bordetella Pertusis*. Kukatxeztularen epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Edoskitzailearen kukutxeztula. Emakume haurdunen eta haurren prebentzioa txertaketaren bidez.